

EDITORIALA

Erantzuteko garaia

Egungo testuinguru ekonomikoan eragile ezberdinen interesak eta proposamenak erruz plazaratzen ari dira hedabide ezberdinetan. Betiko moduan, hedabideen kontrola dutenek, ideologiko, nahiz ekonomiko eta ildo editorialaren haritik, abantailaz jokatzeko dute, bereari lehenetsia eman eta besteak beste derrigorrezko isiltasunera alboratuz. Ezer berririk ez, bestalde.

Hori horrela bada ere, eragile ekonomiko, patronal eta sindikatuen konplizitatearekin estatuko gobernuak agertu dituen pentsio eta lan erreformen neurriak hain erasokorrak dira, ze ezin izan dituzte ezkutatu eta plazara irten dira. Gu ere, euskal gehiengo sindikalarekin batera, neurri horien inguruko gure hausnarketa langile eta gizarte artean helarazten eta hedatzen ari gara. Bestelako bitartekoak erabiliz, eragile horiek darabilten amarru estrategia biluzik utzi dugu, ordea.

Eta denbora pasa hala erabat betetzen ari da gehiengo sindikalak iragarritako erregulazte garaia etorrera. Eszenifikazioa ere aurreikusitakoa bezala izan da. Amuzki gisa erretiro adina atzeratzea planteatu eta gero bertan behera utzi, gauzak bere onera etorri izan balira bezalako itxurakeria emateko. Bitartean, gainontzeko neurriak hortxe dira, langile guztien kalterako. Gehiengo sindikalak, greba orokorra gauzatu ondoren, etengabe jarraitu du politika horiek salatzen eta hurrengo hitzordua ere jarrita dago: Martxoaren 27an Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan manifestazioak burutuko dira.

Mobilizazio horiei begira berotze lanak abian jarri dira. Neurrien aurkako jendearen ondorena eta haserre bideratu behar dugu lau hiriburuetako karriketara, bestelako politika publikoak aldarrikatzeko eta erreformei ezezko borobila emateko. Honela, beste gizarte eredu baten aldarrikapenean euskal gehiengo sindikalak duen indarra eta atxikimendua erakutsi behar dugu. Erantzuteko garaia delako, 27an kaleak beteko ditugu.

27 de marzo: manifestaciones en Bilbao, Donostia, Gasteiz e Iruña

VAMOS A RESPONDER

El próximo 27 de marzo las calles de las capitales de Hego Euskal Herria tienen que ser un clamor a favor de los derechos de la clase trabajadora y en contra de las propuestas que el Gobierno de Zapatero ha puesto sobre la mesa para reformar las pensiones y la legislación laboral.

Las medidas suponen un retroceso brutal en nuestros derechos. Cuando la mayoría sindical convocó la huelga general del 21 de mayo de 2009, ya advertimos de que si no se producía un giro radical en las políticas, vendrían los ajustes. Y ya están aquí. Quienes gobiernan han seguido dando a la patronal y al capital todo lo que han querido. Y ahora se han puesto de acuerdo para que la crisis la paguemos los trabajadores y trabajadoras. Por eso quieren retrasar la jubilación a los 67 años, recortar las nuevas pensiones, abaratar el despido y aumentar la flexibilidad laboral.

Los gobiernos, todos, van de la mano de la patronal. En las empresas sufrimos destrucciones masivas de empleo. En los últimos 18 meses la población desempleada ha aumentado en 78.900 personas, duplicándose, de esta manera, el número de parados/as. Y la cosa no queda ahí, porque las empresas pretenden aumentar la flexibilidad y la precariedad. Por si todo lo anterior no fuera suficientemente grave, ahora han decidido que les molesta la negociación colectiva. Es una patronal a la que los gobiernos no le ponen ningún freno; les dan todo.

¡HAY QUE PARARLES!

Nos encontramos en un momento clave. Tenemos que conseguir frenar esta oleada de recortes. Y eso sólo se consigue mediante la lucha. Por eso, la mayoría sindical vasca -ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE e Hiru- llamamos a la movilización. Tras el éxito de los actos del 2 y 8 de marzo, el sábado 27 de marzo tenemos la siguiente cita.

La agresión que está sufriendo la clase trabajadora es muy fuerte. Por ello, vamos a pelear por lo que tanto nos ha costado lograr.

Hay razones más que suficientes para movilizarnos y salir a la calle. ¡Con tu apoyo podemos pararles!



EL 27 DE MARZO... ¡A LA CALLE!

-¿Qué lectura hace ELA de las reformas anunciadas: pensiones, mercado laboral, negociación colectiva...?

-Son muy duras. En pensiones, recortan derechos para favorecer que los Bancos ganen más dinero todavía. En la Reforma Laboral, se vuelve a utilizar la coartada de la temporalidad para dar más precariedad a la patronal. La reforma de la negociación colectiva, entre otras cosas, para centralizarla, vieja aspiración del sindicalismo español y chollo para los empresarios. Los convenios de ámbito estatal es igual a pérdida de derechos.

-¿Cómo hemos llegado a la situación actual?

-Dijimos en la huelga general del 21-M que si no se cambiaban las políticas públicas los ajustes se harían sobre nuestros derechos sociales y laborales. Aquí están. El injusto reparto de la riqueza nos ha traído hasta aquí.

-Si no los paramos, ¿qué consecuencias van a tener sobre la clase trabajadora?

-Que perderemos derechos sociales y laborales. Para el sindicato, hacer frente a todo esto es una prioridad.

-¿Qué respuesta va a dar el movimiento sindical vasco?

-Actuar con responsabilidad nos lleva a la reivindicación, a oponernos a esas reformas, a defender con uñas y dientes los derechos que tanto han costado. Eso no se puede hacer sin movilización social. El diálogo social es una caja vacía que sólo se justifica en los dineros públicos que obtienen quienes participan. Ese modelo está pensado para desmovilizar a la clase trabajadora y a la sociedad.

-El día 27 de marzo...

-El poder político no quiere tomar ninguna medida que afecte en negativo al poder económico. Patronal, Banca y Gobiernos están de acuerdo en que una crisis que crearon ellos la paguemos nosotros. El sindicalismo no puede acompañar al poder en ese camino. Por ello, el 27 de marzo les haremos frente.



Bilbo (17:30, Jesusen Bihotza), Donostia (17:30, Bulebar), Gasteiz (18:30 Bilbo Plaza), Iruña (18:00, Gaztelu Plaza)

27 MARZO: MOVILIZACIONES DE LA MAYORÍA SINDICAL CONTRA LAS ÚLTIMAS REFORMAS

MARTXOAK 27: MOBILIZAZIO EGUNA

GURE ESKUBIDEN ALDE

BRUTAL ATAQUE A LOS DERECHOS DE LA CLASE TRABAJADORA

enplegu eta pen-tsio duinak!

ELAk, gehiengo sindikalarekin batera, greba orokorra deitu zuen 2009ko maiatzaren 21erako. Grebari krisiaren aurkako gure dekalogoaren inguruko kanpainak eman zion jarraipena. Horretaz badira hainbat hilabete, baina garai hartan ohararazten genuena bete da: politika publikoaren aldaketa behartzen ez bagenuen murrizketa gehiago etorriko zirela. Hemen daude. Kasu honetan pentsioen, lan erreformaren eta negoziazio kolektiboaren inguruko erreforma bezala

datozkigu. Erreforma horien azken zehaztapenak gairi, helburu duten norabidea salatu beharrean gaude, betiere patronalaren eta bankaren mesedetan. Espainiako Bankuak eta patronalak erreforma hauek txalotzea normala da. Larriena UGT eta CCOO sindikatu espainiarrena da. Agerikoa da eredu sindikal espainiarrak aurrean jartzen dioten guztia sinatuko duela. Pentsioen erreforman antzerki apurtxo bat egingo du, mobilizazioak –edo sasi-mobiliza-

zioak– deituz. Baina, dagoeneko ondo dakigu filma nola bukatuko den: sinatzen amaituko dute, beti bezala. Espainiako erregearekin egindako bilera hitzarmenaren funtsa definitzen du. Espainiar erako *gizarte-elkarrizketa* deitzen duten *vaudeville* horretan, parte hartzen dutenek barre egiten dute, diru publikoetatik datozen izugarritzko dirutzak banatzen dituztelako euren artean. Bitartean, beste guztiok, langileok, gorriak pasatzen ari gara.

REFORMA DE PENSIONES

MEDIDAS PROPUESTAS:

- Retrasar la edad legal de jubilación de los 65 años actuales a los 67.
- Más años de cotización para calcular la base reguladora.
- Aumento del período de carencia.
- Retraso de la jubilación anticipada. Hoy en 52 años.
- Recorte de la pensión de viudedad por diversas vías.
- Recorte de la prestación por incapacidad temporal.

VALORACIÓN:

- Se recortan las nuevas pensiones y se dificulta el acceso a las prestaciones.

REFORMA LABORAL

MEDIDAS PROPUESTAS:

- Abaratamiento del despido. Se plantea modificar la regulación del despido para que en la práctica sea más fácil y barato. Además, se pretende que se utilice más el contrato indefinido con indemnización por despido imprevisto de 33 días por año (en lugar del que tiene una indemnización de 45 días).

- Mayor flexibilidad laboral. Flexibilizar el contrato a tiempo parcial para que las empresas lo utilicen como



prestaciones.

- Se reducen las pensiones públicas y se potencian las privadas, fomentándose, así, los intereses de la Banca y los Seguros.
- Posibilita que el Fondo de Reserva se invierta en Bolsa, con los riesgos que ello conlleva.
- El retraso de la edad de jubilación a los 67 años puede ser utilizado como un señuelo. El resto de medidas también son muy graves.
- Estas medidas demuestran la orientación neoliberal de las políticas, independientemente de quién gobierne.

EXIGENCIAS DE ELA:

- La mejor manera de garantizar la viabilidad del sistema es que los salarios ganen poder adquisitivo. Salarios dignos que permitan cotizaciones.
- Retirada del documento del gobierno español y compromiso de no realizar propuestas encaminadas al recorte de pensiones.
- Dignificar las prestaciones del sistema de la S.S.
- Abrir la financiación de las pensiones a impuestos, no sólo a cotización sociales.
- Las decisiones sobre la S.S. se deben tomar en el ámbito de Hego Euskal Herria.



quieran. También se avanza la necesidad de flexibilizar más la organización interna de las empresas.

- Mayor utilización de las ETTs e introducción de las agencias privadas de colocación en la intermediación laboral, reduciendo el ya escaso peso de los servicios públicos de empleo.
- Modificación de la estructura de la negociación colectiva. Se apunta a la centralización, poniendo en riesgo la existencia de los convenios sectoriales territoriales.

VALORACIÓN:

- ELA rechaza esta nueva reforma laboral porque facilita y abarata el despido, aumenta la flexibilidad y la precariedad, privatiza la intermediación en el mercado de trabajo, empeora la Incapacidad Transitoria (bajas) y amenaza la libertad de elegir el ámbito en el que negociar.
- Buscan un mercado de trabajo con desempleo, precariedad y bajos salarios.
- Las medidas dan aún más poder a la patronal.

martxoaren

KALEERA

an

manifestazioak

Gasteiz: Bilbo plaza 18:30
Bilbo: Jesusen Bihotza 17:30 Iruñea: Gaztelu plaza 18:00
Donostia: Bulebar 17:30 ELA-LAB-ESK-STEE/EILAS-EHNE-HIRU

Adolfo Muñoz, Txiki, idazkari nagusiak dei egiten die langileei martxoaren 27rako gehiengo sindikalak antolatu dituen mobilizazioetan parte hartzera

"GOGOR BORROKATUKO DUGU HORRENBESTE URTETAN LORTU DUGUNA MANTENTZEKO"



-Zein irakurketa egiten duzu Zapateroren gobernuak iragarri dituen erreforma ezberdinen inguruan?

-Langileen interesen aurka iragarri dituzten neurriak oso gogorak dira. Pentsioei dagokionez, eskubideak murrizten dituzte Bankuek diru gehiago irabazi dezaten. Zapaterok Bankarentzat egiten du lan; jakin badaki pentsio publikoak jaisten baditu funtsa pribatuak kontratatzeraz derrigortzen duela. Bankarentzat soilik sektore publikoa atzera botatzen bada egin dezakeen negozioa da. Eta lan erreforman, berriro behin-behinekotasunaren aitzakia erabiltzen da patronalari are eta prekaritate gehiago emateko. Ezin dugu ahaztu, gainera, administrazioek ez dutela ezer ere egiten egun iruzurrean dauden milaka eta milaka behin-behineko kontratuen aurka.

Negoiazio kolektiboaren inguruko erreforma, bere aldetik, Estatua-uniformatzeko erabili eta baliatu nahi dute. Jakin badakite estatu-mailako hitzarmenak miseriazkoak direla, eta eskubideen

galera suposatzen dutela. Horregatik zabaldu nahi dituzte. Zentralizazio hori sindikalgintza espainiarraren aspaldiko ametsa da, eta izugarriko pagotxa enpresarientzat.

-Nola heldu gara egoera honetara?

-Maiatzaren 21eko greba orokorrean argi eta garbi esan genuen politika publikoak aldatu ezean langileen interesen aurkako urraketa gehiago, eta larriagoak, egongo zirela. Hemen daude. Gobernuak, bai Gasteizen, bai Iruñean eta bai Madrilan, eskuineko politikak egin dituzte, betiere patronalaren eta bankaren zerbitzura. Aberastasunaren banaketa bidegabeak ekarri gaitu honaino. Banaketa justuagoa ekarriko luketen politikak egitearen aurka daude, patronalaren eta bankaren gatibu dira. Patronalaren zein bankaren eskakizunei jaramon egitea gizarte-arrisku larria bihurtu da.

-Erreforma hauek gelditzen ez baditugu, zein ondorio izango ditu langile jendearentzat?

-Lan eta gizarte eskubideak galduko ditugula. Patronala, gainera, botere politikoaren babes irmoarekin, lan eskubideen aurkako erasoaldia planteatzen ari da. Hainbat esparrutan jokatu du, eta guztietan irabazi nahi du. Langileak kaleratzen ditu; lan egiten duenarentzat flexibilitate gehiago nahi du, belduraren bidez etekin gehiago ateratzeko; xantaia erabiltzen du; negoziazio kolektiboaren aurkako erasoak amaigabeak dira... ELArentzat, horri guztiari aurre egitea, lehenasuna da.

-Nola baloratzen duzu orain arte gehiengo sindikalak eraso hauei eman dien erantzuna?

-Erantzukizunez aritzeak aldarrikatzeraz eramatzen gaitu, erreforma hauei



aurre egitera, horrenbeste lortzea kostatu zaizkigun eskubideak kosta hala kosta defendatzeraz. Hori guztia ezin da egin gizartearen mobilizaziorik gabe. Ezinbestekoa da sindikalgintza sendoa izatea, gobernuari eta patronalari egin nahi ez dutena egitera behartzeko; azken finean, erreformak geldiarazi eta lan-eskubideak defendatzea. Horrek esan nahiko luke gizartearen mobilizatzeko gai garela. Ez dago beste biderik.

-Agerikoa da Hego Euskal Herrian gehiengo sindikala -ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta Hiru- iragarritako neurrien aurka dagoela. Beste batzuk, ordea, ez doaz bide horretatik. Nola ulertu liteke hori?

-Gizarte elkarrizketa deitzen duten hori edukirik gabeko kaxa hutsa da. Soilik ulertu liteke bertan parte hartzen dutenek diru publikoetatik jasotzen dituzten dirutzak ikusita. Langile-jendea eta gizartearen desmobilizatzeko pentsatua dagoen eredu da. Argazki hutsak

dira: bertan Gobernuak, patronaleko eta UGT eta CCOO sindikatuak ordezkariek ageri dira, eskua emanda, langileen interesen aurkako erasoak adosten diren bitartean. Batera ezina da gobernuak planteatzen duenaren aurka zaudela esatea eta era berean *gizarte elkarrizketak* funtzionatzen duela esatea.

-Amaitzeko, zein mezu helarazi nahi diozu langile-jendeari martxoaren 27ari begira?

-Martxoaren 27an ezin da inor etxean geratu. Asko dago jokoan, eta ezinbestekoa da guztion parte hartzea. Botere politikoak ez du botere ekonomikoari kalte egingo dion inolako neurriarik hartu nahi. Patronala, banka eta gobernuak ados daude oinarri-oinarrian: euren sortu zuten krisia guk ordainaraztea nahi dute. Sindikalgintzak ezin du horren bide-lagun izan. Horregatik, Hego Euskal Herriko lau hiriburuak jendez gainezka behar ditugu larunbatean, martxoaren 27an.

www.ela-sindikatu.org

ELA  **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatu.org

Franqueo concertado
nº 08/207